BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2251

EBAZPENA, 2012ko apirilaren 26koa Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko ekainaren 1eko Aginduaren bidez deitutako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena; agindu horren bidez, diru-laguntzetarako deialdia egiten da Pirinioetako Lan Elkartearen lankidetza-esparruan, 2011-2012 epealdian, ikerketa-sareak eta teknologiako ikerketa– eta garapen-proiektuak garatzeko (2011ko ekainaren 17ko EHAA, 115. zk.).

Deialdi-aginduaren 11.1 artikuluaren arabera, ebaluazio-batzordeak proposamena aurkeztuko dio Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari, eta hark laguntzak esleitu edo ukatuko ditu ebazpen baten bidez. Ebazpen horretan emateko edo ukatzeko arrazoiak adieraziko ditu, eta interesatuei banan-banan jakinaraziko zaie ebazpena. Denek horren berri izan dezaten, EHAAn argitaratuko da erakunde onuradunen zerrenda, jasotako zenbatekoa eta finantzatu den programaren titulua.

2011ko azaroaren 30ean ebatzi zen deialdia, eta interesatuei banan-banan jakinarazi zaie ebazpena; beraz, argitaratu egin behar dira emandako laguntzak, jendeak horren berri izan dezan. Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ikerketa-programak garatzeko emandako laguntzen onuradunen zerrenda eta emandako zenbatekoak argitaratzea, betiere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko ekainaren 1eko Aginduaren babesean (2011ko ekainaren 17ko EHAA, 115. ZK.); agindu horren bidez, laguntzetarako deialdia egiten da, Pirinioetako Lan Elkartearen lankidetza-esparruan ikerketa-sareak eta teknologiako ikerketa- eta garapen-proiektuak garatzeko 2011-2012 epealdian. Ebazpen honen eranskinean dator zerrenda.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 26a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
PEDRO LUIS ARIAS ERGUETA.

ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO PROIEKTUAK							Finantzaketa (€)		
EAK kodea	PLE kodea	Lurralde koordinat.	Urteak	Egitarauko izenburua	Ikertzaile nagusia	Onuradunak	2011	2012	Guztira
CTP11-P04	CTP11-P5	Midi-Pyrénées	2	Estudio de la eficacia a largo plazo de la selección genética contra las Encefalopatías Espongiformes Transmitibles ovinas	Castilla Castrillón, Joaquín	CIC Biogune	16.000	14.000	30.000
CTP11-P02	CTP11-P6	Euskadi	2	Char-Biax: Desarrollo de tecnologías para la caracterización reológica y tribológica de materiales metálicos a alta temperatura	Izaguirre Altuna, Alberto	Mondragon Goi Eskola Politeknikoa	33.000	22.000	55.000
CTP11-P09	CTP11-P7	Aragón	2	Estudio de viabilidad de implementación de energías renovables a través de microrredes en los pueblos del Pirineo (Ruralgrid)	Martín González, José Luis	UPV/EHU	33.000	32.000	65.000
CTP11-P14	CTP11-P12	Aragón	2	Mapeo en la escala nano de las propiedades físicas y químicas de nanomateriales avanzados	Chuvilin, Andrey	CIC Nanogune	22.000	18.000	40.000
CTP11-P15	CTP11-P13	Catalunya	2	Desarrollo de procesos sostenibles por integración de tecnologías de membranas y de oxidación avanzada para la recuperación de efluentes contaminados	Lombrana Alonso, José Ignacio	UPV/EHU	16.000	14.000	30.000
							120.000	100.000	220.000